# 2023 IRUDITAN EN IMÁGENES

TULankide




















TULankide

**URTEKARIA** ANUARIO

# 20 FOTOS DEL / ARGAZKI 23 KOAK




1

## Hirekin zentroaren lehen harria

2023ko urtarrilean hasi ziren Mondragon Unibertsitateko Hirekin berrikuntza eta ekintzaileetza industrialeko zentroaren lanak. Zentroak industriaren eta teknologia-sektorearen deskarbonizazioa, digitalizazioa eta jasangarritasuna lagunduko ditu. Proiektuaren inbertsioa 8 milioi euro ingurukoa izango da eta urte honen erdialderako obra amaituta egotea espero da.

## Primera piedra del centro Hirekin

En enero del 2023 comenzaron las obras del centro de innovación y emprendimiento industrial Hirekin de Mondragon Unibertsitatea. El centro contribuirá a la descarbonización, digitalización y sostenibilidad de la industria y el sector tecnológico. La inversión del proyecto alcanzará cerca de 8 millones de euros y se espera que la obra esté terminada para mediados de este año.

## Bihar, kooperatiba berria

Adinekoak eta mendekotasuna duten pertsonak beren etxean kalitate handiagoarekin bizi ahal izateko zerbitzu eta produktuetan espezializatuta kooperatiba da Bihar. Urtebeteko ibilbidea egin du dagoeneko eta zainketen sektorean erreferente bihurtu nahi du. MONDRAGON Healthen testuinguruan jaio da kooperatiba, zeinean GSR kooperatibak eta MONDRAGONeko hiru dibisiok ere parte hartzen duten.

## Bihar, nueva cooperativa

Bihar es una cooperativa especializada en servicios y productos para que las personas mayores y dependientes puedan vivir en su hogar con mayor calidad. Ha recorrido ya un año y pretende convertirse en un referente en el sector de los cuidados. La cooperativa nació en el contexto de MONDRAGON Health, donde también participan la cooperativa GSR y las tres divisiones de MONDRAGON.

2





3

## Eneak 2022ko Diseinu Sari Nazionala jaso zuen

Espainiako erregeek eta Espainiako Gobernuko Zientzia eta Berrikuntzako ministroak parte hartu zuten ekitaldian. Kooperatibako ordezkaritza bat ekitaldian izan zen, enpresaren ibilbidean mugarri izan den saria jasotzeko.

## Enea recibió el Premio Nacional de Diseño 2022

En un acto en el que participaron los Reyes de España y la ministra de Ciencia e Innovación del gobierno de España. Una delegación de la cooperativa asistió al evento para recoger el premio y disfrutar de una jornada que ha supuesto un hito en la trayectoria de la empresa.




4

## Inklusiorako pauso garrantzitsua

Eroskik Soraluzen ireki zuen Gureakeko langileekin osatutako laugarren supermerkatua. Gureak eta Eroski 2016. urtean hasi ziren eredu hori ezartzen Azpeitian; berehala egiaztatu zen ereduak funtzionatzen duela. Ondoren, bi supermerkatutan ezarri zen Gasteizen.

## Otro importante paso para la inclusión

Eroski abrió en Soraluze el cuarto supermercado con trabajadores de Gureak, que conforman la totalidad de la plantilla. Gureak y Eroski comenzaron a implementar este modelo en 2016 en Azpeitia; se constató rápidamente que el modelo funciona. Posteriormente, se implantó en dos supermercados en Gasteiz.





5

## Euskal inspirazioko elkarte gastronomikoa Korean

Seulgo metropoli-barrutian inauguratu zen iaz txoko korearra. 15 bazkide ditu dagoeneko eta hainbat ekitaldi antolatzen dituen gune sozial bihurtu da. Ekimenaren bultzatzailea Do Hyun Ha izan zen; euskal kooperatibismoa eta kultura in situ ezagutzeko Euskadira egin zuen bidaian hartu zuen ideia.

## Sociedad gastronómica de inspiración vasca en Corea

El txoko coreano, inaugurado el año pasado en el área metropolitana de Seúl, ya tiene 15 socios, y se ha convertido en un espacio social en el que se organizan diversos eventos. El impulsor de la iniciativa fue Do Hyun Ha, quien cogió la idea en el viaje que hizo a Euskadi para conocer in situ el cooperativismo y la cultura vasca.

6

## Donostia, Gizarte Ekonomiaren Europako hiriburu

Hiriburutza horren testuinguruan, MONDRAGONek oso modu aktiboan parte hartu zuen azaroaren 13an eta 14an Donostian egindako Gizarte Ekonomiaren Europako Konferentzian, tailerretan eta osoko bilkura nagusian parte hartuta. Bestalde, parte-hartzaileek MONDRAGONeko hainbat kooperatiba bisitatu zituzten (Orbea, Danobatgroup, Ikerlan, Ideko, Mondragon Unibertsitatea...), eta Arizmendi Ikastolako ikasleek beren proiektua aurkeztu zuten Gazteak eta Gizarte Ekonomia izeneko tailerrean. Konferentzia horren ekitaldiei amaiera emateko, Denon Artean saria eman zitzaion aurten Europako Batzordeari, eta Nicolas Schmit Enpleguko eta Gizarte Eskubideetako Europako komisarioak jaso zuen. Ekitaldi honen amaiera kontzertu bikaina izan zen, 2019an Jon Sarasuak eta Fernando Velazquezek sortutako Sinfonia Kooperatiboa entzun zelarik.

## Donostia, capital europea de la Economía Social 2023

En el contexto de esta capitalidad, MONDRAGON participó de forma muy activa en la Conferencia Europea de la Economía Social celebrada en Donostia los días 13 y 14 de noviembre, con participación en los talleres y en el plenario principal. Por otro lado, las personas participantes en la conferencia visitaron varias cooperativas de MONDRAGON (Orbea, Danobatgroup, Ikerlan, Ideko, Mondragon Unibertsitatea...), y estudiantes de Arizmendi Ikastola presentaron su proyecto en el taller sobre Jóvenes y Economía Social. Como colofón a los actos de esta conferencia se procedió a la entrega del premio Denon Artean que este año se concedió a la Comisión Europea, y que recogió el Comisario Europeo de Empleo y Derechos Sociales, Nicolas Schmit. La guinda final a este evento fue un magnífico concierto en que se escuchó la Sinfonía Cooperativa creada en 2019 por Jon Sarasua y Fernando Velázquez.

7

# Mondragon Unibertsitateak 25 urte

Mondragon Unibertsitateak mende-laurdena bete zuen iaz, berrikuntzaren, praktikotasunaren eta hezkuntza-kalitatearen erreferente moduan. Urteotan, unibertsitate berritzailea, praktikoa, kalitatekoa, konprometitua eta pertsonen garapen integralean oinarritua izatera heldu da. Donostiako Kursaal Biltzar Jauregian egin zuen urteurreneko ekitaldia.

# 25 años de Mondragon Unibertsitatea

Mondragon Unibertsitatea cumplió el año pasado un cuarto de siglo como referente en innovación, practicidad y calidad educativa. En estos años ha llegado a ser una universidad innovadora, práctica, de calidad, comprometida y basada en el desarrollo integral de las personas. Celebró el acto de aniversario en el Palacio de Congresos Kursaal de Donostia.







## Eta Universidad Mondragón Mexikok, 10 urte

Lehen hamarkada bikaina gauzatu du, 2.000 ikaslerekin eta gradu eta master eskaintza zabalarekin. Etorkizun handiko errealitatea da eta aurreikuspenen arabera, 2028an 3.000 ikasle baino gehiago izango ditu.

## Y Universidad Mondragón México, 10 años

Cumple su primera década de forma brillante, con 2.000 alumnos y una amplia oferta de grados y másteres. Y es una realidad prometedora que se prevé supere los 3.000 alumnos en 2028.




8

## Enpresen Nazioartekotzearen saria jaso zuen Lana-k

Gipuzkoako Bazkundeak kooperatibak nazioarteko negozioaren garapenean egindako ahalegina eredugarria dela aitortu zuen: “Merkatu nazionalean liderra izatetik, fokua aldatu eta Europa tokiko merkatu gisa hartzea lortu du. Enpresak nazioartekotze-prozesua hasi zuen uneko zirkunstantziek eta lortutako arrakastak erresilientziaren eta kemenaren adibide bihurtzen dute Lana S. Coop. “.

## Lana, premio a la Internacionalización Empresarial

La Cámara de Gipuzkoa reconoció el carácter ejemplar del esfuerzo de la cooperativa en el desarrollo de su negocio internacional: “De ser un líder en el mercado nacional ha logrado cambiar el foco y asumir a Europa como mercado local. Las circunstancias del momento en el que la empresa inició su proceso de internacionalización y el éxito alcanzado, hacen de Lana S. Coop. un ejemplo de resiliencia y tesón”.

## MONDRAGON Health, osasunaren eta arlo soziosanitarioaren aldeko apustu korporatiboa

Zazpi kooperatibak, Sustapen Zentroarekin eta Korporazioko beste erakunde batzuekin batera, lankidetza-dinamika berri bati ekin zioten, MONDRAGON Health eta haren jarduera bultzatzeko osasunaren, soziosanitarioaren eta bioteknologiaren arloetan. Donostiako Aquariumean egin zuten lankidetza-proiektuaren aurkezpen ekitaldia.

## MONDRAGON Health, apuesta corporativa por el sector salud y sociosanitario

Siete cooperativas junto al Centro de Promoción y otras entidades de la Corporación iniciaron una nueva dinámica colaborativa para impulsar MONDRAGON Health y su actividad en los ámbitos de la salud, sociosanitario y biotecnológico. El Aquarium donostiarra fué el lugar elegido para relanzar el proyecto de colaboración.

9






10

## Ekiola Mendialdea, energia ekoizten duen Euskadiko lehen kooperatiba herritarra

Ekiola Mendialdeak, Arabako Arraia-Maeztu udalerrian dagoen Euskadiko eguzki-energia ekoizteko kooperatibak, sarerako konexioa osatu zuen sei hilabeteko lanen ondoren, eta, beraz, dagoeneko 0 km-ko energia berriztagarria ekoizten du. Ekimen aitzindari honekin bat egin duten herritarrak hornitzen ditu instalazioak.

## Ekiola Mendialdea, primera cooperativa ciudadana de Euskadi en producir energía

Ekiola Mendialdea, la cooperativa para la producción de energía solar de Euskadi situada en el municipio alavés de Arraia-Maeztu, completó su conexión a red tras seis meses de trabajos, por lo que ya produce energía renovable que abastece a la ciudadanía que se ha adherido a esta iniciativa pionera para producir y consumir electricidad km 0.

## Urteurrenak: Eikak eta Loramendik 50 urte; 60 urte Batzek

Hiru kooperatiba historikok urteurrenak ospatu zituzten 2023an: Women Itzuliak Etxebarrian egin zuen irteerak eman zien hasiera ofiziala Eikaren 50. urteurreneko ekitaldiei eta ekintza ugari egin zituzten urtean zehar; Loramendik ate irekien jardunaldia egin zuen Gasteizko instalazioetan 50. urteurrena ospatzeko; Batzek Igorreko lantegian egin zuen 60. urteurreneko ekitaldia, bizi izan duten krisi sakona atzean utzi dutela ospatuz.

## Aniversarios: 50 años de Eika y Loramendi; 60 años de Batz

Tres cooperativas históricas celebraron sus aniversarios en 2023: el comienzo de la Women Itzulia en Etxebarria dio el pistoletazo de salida oficial a los actos del 50 aniversario de Eika; Loramendi celebró una jornada de puertas abiertas en las instalaciones vitorianas para conmemorar su 50 aniversario; y Batz conmemoró su 60 aniversario en la planta de Igorre celebrando que han dejado atrás la profunda crisis que han vivido.

11











12

## Muntaia-lantegi berria inauguratu zuen Soralucek

Soraluce kooperatibak muntaia-lantegi berria inauguratu zuen Bergarako Osintxu auzoko egoitza nagusian, Iñigo Urkullu lehendakaria eta beste agintari batzuk bertan zirela. 2.530 metro karratuko lantegi berria ikuspuntu jasangarri batetik diseinatu eta eraiki zen, eta sektorearen erronkei erantzuten die, bere produktu-portfolioan fresatzeko makinen lerro berri bat txertatzearen alde eginez.

## Inauguración nueva planta de montaje de Soraluce

La cooperativa Soraluce inauguró la nueva planta de montaje en su sede central del barrio Osintxu de Bergara, con la presencia del Lehendakari Iñigo Urkullu y de otras autoridades. La nueva planta de montaje de 2.530 metros cuadrados fué diseñada y construida desde un punto vista sostenible y responde a los desafíos del sector, apostando por incorporar en su portfolio de productos una nueva línea de fresadoras.

13

## Pello Rodriguez Zabaletak ordezkatuko du Iñigo Ucín

Kongresu Kooperatiboaren Batzorde Iraunkorrak abenduan erabaki zen Pello Rodríguez Zabaleta izendatzea Korporazioko Kontseilu Orokorreko hurrengo lehendakari. Kontseilu Orokorreko lehendakaritza utzita, Ucín jubilatu egingo da datorren uztailean. Orduan hartuko du kargua Rodriguezek.

## Pello Rodríguez Zabaleta sustituirá a Iñigo Ucín

En diciembre se acordó el nombramiento de Pello Rodríguez Zabaleta como próximo presidente del Consejo General de la Corporación. Se incorporará al cargo una vez que Ucín concluya su etapa al frente del Consejo General y acceda a la jubilación, el próximo mes de julio.






14

## Eroskik zorra amortizatu zuen

Eroskik aldez aurretik amortizatu zuen bere aurreko finantzaketa-akordioari lotutako zorra, eta bi epe-muga zituzten konpromisoak estali zituen: 2024ko uztailaren 31n 503 milioi euroko zenbatekoan eta 2027ko uztailaren 31n 200 milioi euroko zenbatekoan. Finantza-egitura berria zorpetze-maila murrizteari esker gauzatu zen.

## Eroski amortiza la deuda

Eroski amortizó de manera anticipada la deuda vinculada a su anterior acuerdo de financiación, cubriendo los compromisos pendientes que tenían dos plazos de vencimiento, el 31 de julio de 2024 por un importe de 503 millones de euros y el 31 de julio del 2027 por un importe de 200 millones de euros. La nueva estructura financiera fue posible por la reducción de su nivel de endeudamiento.




15

## Sharma Catering Donostiako Zinemaldian

Sharma Catering, Ausolanen gourmet proposamena, Donostiako Zinemaldiaren 71. edizioaren inaugurazio ofizialaren ondoren San Telmo Museoan zerbitzatu zen proposamen gastronomikoaz arduratu zen. Zinemaldiarekin lotutako beste zenbait ekitalditan ere eskaini zuen zerbitzua, hala nola zinemaren industriaren jaian edo Audi Españak marka anfitrioi bezala egin zuen galan.

## Sharma Catering en el Festival de Donostia

Sharma Catering, propuesta gourmet de la firma de Ausolan, se encargó de la puesta en escena de la propuesta gastronómica que se sirvió en el Museo San Telmo tras la inauguración oficial de la 71ª edición del Festival de Cine de San Sebastián. También ofreció otros servicios vinculados al Zinemaldia, como la fiesta de la industria del cine o la velada de Audi España como marca anfitriona.






16

## Ausolan txapeldun!

Ausolanek irabazi zuen Madrilgo Enpresen Lasterketa, urte bikaina osatuz Donostian, Bilbon eta Gasteizen lortutako garaipenen ondoren, guztiak ere probako errekorrarekin. Hassan Oubadi, Mustapha Archaoui, Ahmed Ouslimane eta Brahim El Asri, izan ziren Ausolaneko Geslagun garbiketa dibisioko langileak, euskal kooperatibaren elastikoarekin proba desberdinetan garaipenak lortu zituzten atletak. Gora zuek!

## Ausolan txapeldun!

Ausolan se adjudicoì la Carrera de las Empresas de Madrid, completando un anÞo excelente tras las victorias en Donostia, Bilbo y Vitoria- Gasteiz, todas ellas con reìcord de la prueba incluido. Hassan Oubadi, Mustapha Archaoui, Ahmed Ouslimane y Brahim El Asri, trabajadores de Geslagun, la divisioìn de limpieza de Ausolan, fueron los atletas que lograron las victorias en las diferentes pruebas con la camiseta de la cooperativa vasca. Gora zuek!

## Ikerlanek Orbik merkaturatu zuen

Orbik zibersegurtasuneko euskal ekosistema indartsua osatzeko eta indartzeko sortu zen, industria zibersegurtasun-zerbitzuez hornituz, espezializazio-maila handia eskatzen duen behar teknologiko eta arauemaile bat betez. Horrela, Orbik da ekipamendu elektronikoa zibersegurú gisa egiaztatzeko aukera ematen duen kanpo-zigilua eskaintzen duen Estatuko lehen empresa.

## Ikerlan lanzó Orbik

Orbik nació para completar y reforzar el potente ecosistema vasco de ciberseguridad, proveyendo de servicios de ciberseguridad a la industria, cubriendo así una necesidad tecnológica y normativa que requiere de un alto nivel de especialización. Así, Orbik es la primera empresa del Estado que ofrece un sello externo que permite acreditar el equipamiento electrónico como ciberseguro.

17






18

## Ezagutza Dibisioaren sorrera

Iazko uztailean eratu zen formalki MONDRAGONen Ezagutza Dibisioa, ikastetxeek (Arizmendi, Lea Artibai, Politeknika Txorierri), unibertsitate batek (Mondragon Unibertsitatea) eta zentro teknologikoek (Ikerlan, Lortek eta Leartiker) osatua. MONDRAGONeko ezagutzaren ekosistema indartzeko asmoarekin sortu zen proiektua.

## Creación de la División de Conocimiento

En julio del año pasado se constituyó formalmente la división de Conocimiento de MONDRAGON, integrada por centros educativos (Arizmendi, Lea Artibai, Politeknika Txorierri), una universidad (Mondragon Unibertsitatea) y centros tecnológicos (Ikerlan, Lortek y Leartiker). Un proyecto que nace con la idea de fortalecer el ecosistema del conocimiento de MONDRAGON.



19

## Elkartasun uholdea Urkulun

Inoizko jendetzarik handiena batu zen Urkuluko urtegian (Aretxabaleta) Mundukidek antolatutako lasterketa solidarioan. Guztira kooperatibetako 44 taldek hartu zuten parte lasterketan eta ehundik gora lagunek oinezko ibilbidea aukeratu zuten. Ekitaldia Mundukidek munduan dituen proiektuak gizarteratzeko eta munduan elkartasun kooperatiboa bultzatzen jarraitzeko dirua biltzeko balio izan zuen.

## Mundukide inunda de solidaridad el pantano de Urkulu

La octava edición de la carrera solidaria organizada por Mundukide reunió en Urkulu (Aretxabaleta) a más gente que nunca. En total, 44 equipos de diferentes cooperativas participaron en la carrera y un centenar de personas decidieron hacer el recorrido caminando. El evento, no competitivo, y sí muy solidario, sirvió para socializar los proyectos que Mundukide tiene en el mundo y recaudar fondos para seguir impulsando la solidaridad cooperativa en el mundo.

20

## TED hitzaldia MONDRAGONi buruz

Joan den urriaren 15ean, Ander Etxeberria Hedapen Kooperatiboko zuzendariak MONDRAGONen ideia laburbildu zuen 12 minutu pasatxotan TEDx Mantuan, Lonbardia eskualdean dagoen Italiako hirian. Zalantzarik gabe, gure kooperatiba eredua mundura zabaltzeko balioko du.

## Charla TED sobre MONDRAGON

El pasado 15 de octubre, Ander Etxeberria, director de Difusión Cooperativa, fue el encargado de resumir en poco más de 12 minutos la idea de MONDRAGON en TEDx Mantua, ciudad italiana ubicada en la región de Lombardía. Sin duda, servirá para difundir al mundo nuestro modelo cooperativo.



TULankide

# 10

## AHOTS



**Luis Mari Ugarte**
Director general de LagunAro EPSV

**La visión de un experto en la entidad, ante su jubilación:**

***"El principal reto es que LagunAro siga teniendo sentido para las cooperativas, mutualistas y pensionistas"***



**Alberto Gorroñogoitia**
Director general de MISE

**Se retira la segunda generación de *Gorroñogoitias*:**

***"Este mundo necesita muchos MONDRAGONes"***



**Rosa Carabel**
Directora general de Eroski

**Sobre mujer y puestos de responsabilidad:**

***"En Eroski el 74% de las posiciones de responsabilidad están ejercidas por mujeres. Venimos pisando fuerte"***



**Idoia Mujika**
MLA koop-eko zuzendaria.

**Mondragon Lingua eta Alecopen arteko bategiteaz:**

***"Egin dugun honetan sinisten dugu eta etorkizuna ilusioz eta gogotsu kudeatzeko prest gaude"***



**Vicente Atxa**
Vicepresidente de la División de Conocimiento

**Sobre la creación de la nueva División de Conocimiento:**

***"Tenemos muchas cosas en común pero la principal es la formación de las personas, y el desarrollo del conocimiento y la tecnología"***



**Iker Alberdi**
MONDRAGON Construcción

**Una mirada constructiva para un negocio de futuro:**

***"El reto de futuro es tener negocios fuertes con una buena posición competitiva"***



**Amaia Agirre**
Responsable de innovación de la Fundación Ausolan

**La innovación también pasa por la justicia:**

***"Desperdiciar alimentos cuando hay personas que pasan hambre es una injusticia que no podemos permitir"***



**Elena Zárraga**
Directora general de LKS next

**En dinámica positiva:**
***"No descartamos nuevas operaciones corporativas en los próximos meses"***



**Iñaki Lakarra**
Profesor de Mondragon Unibertsitatea y experto en Tecnologías de la Información y Comunicaciones (tic).

**Ante el reto de la Inteligencia Artificial:**
***"Necesitamos más personas que tengan conocimiento en el ámbito de la inteligencia artificial"***



**Javier Marcos**
TU Lankideko zuzendaria

**Aldizkari berrituaren harira:**
***"Gure errezeta: eduki interesgarriak, geureak eta euskarri erakargarrietan, kooperatibei balore erantsia emateko"***

TULankide



## TU LANKIDE 2023:
## la actualidad cooperativa

TU Lankide ha seguido la actualidad cooperativa desde diversos soportes: revista en papel, de carácter trimestral, web (www.tulankide.com), redes sociales y boletines.












# tulankide.com

# 205.492
bisitari 2023an.

# 4.100
harpidedun buletinean

# +8.000
jarraitzaile sare sozialetan



2023 IRUDITAN
EN IMÁGENES

TULankide